

Tirada: **5.470**
Difusión: **4.123**
(O.J.D)
Audiencia: **14.430**
Ref: **11468811**

Diario
Noticias de Álava

Pais Vasco **Diaria**
General
1ª Edición **07/11/2019**

Superficie: **946 cm²**
Ocupación: **100%**
Valor: **3.281,96 €**
Página: **8**



1 / 2

900 IKASLE INGURU GERTURATUKO DIRA UNITOUR AZOKARA EUROPA JAUREGIAN

Feria honetan, **zer eta non** ikasi dezaketen ikusiko dute ● **Gurasoak eta irakasleak** ere gerturatu daitezke

DATUAK

900

Rocio Argudo zuzendariak espero du Gasteizen ospatuko den Unitour azokara 900 ikasle inguru gerturatzea, baita zenbait irakasle eta guraso ere. Ikastetxe batzuk bisita egiteko erreserba egin dute jada.

30

14. edizio honetan, 30 unibertsitate baino gehiago hartuko dute parte Gasteizen ospatuko den azokan, baita hiru unibertsitate-egoitza laguntzaile gisa.

24

Edizio honetan, Espainiako 24 hiri bisitatuko dira. Gainera, Italian beste 4 hirietan ibiliko dira, baita Mexikon, Portugalen eta Andorran ere ikasleen zalentzak argitzeko prest.

8

Ospatuko diren azoketara gerturatzeko diren ikasleen artean, 8 beka zozketatuko dira. Hauek, unibertsitateko lehenengo urteko matrikula ordaintzeko erabiliko dira. Pasa den urtean, zozketatu zirenen artean, bat Gasteizko ikasle batek irabazi zuen.

✉ Sara Cabrera
📧 Alex Larretxi

GASTEIZ – Europa Jauregiak unibertsitate desberdinen atak irekiko ditu gaur, Unitour azokaren inguruan, ikasleek zer eta non ikasi hautatu ahal izateko. Goizeko 10.00etatik 14.00etara arte, eta arratsaldeko 15.30etatik 17.00etara arte egongo da feria hau ikusgai.

Antolakuntzakoek diote goizean zenbait ikastetxetako ikasleek badauketela bisita egiteko erreserba eta haien irakasleekin gerturatuko direla Europa Jauregira, baina arratsaldean, edonor gerturatu daiteke. "Irakasle eta gurasoak ere joan daitezke", diote.

Circulo Formacion aholkularitza-enpresak sortu zuen hezkuntza-orientabidean oinarrituta dagoen areto hau duela 14 urte. Gaur egun, Espainian 24 hiri bisitatzen ditu Unitourek, Italian beste lau, Mexikon hiru, Portugalen 1 eta Andorra ere.

Gasteizera 900 ikasle inguru gerturatuko dira, eta 30 unibertsitate baino gehiago. "Aurten, laguntzaileen artean zenbait unibertsitate-egoitza daude", azaldu dute Circulo Formacion aholkularitza-enpresatik. Haien artean, Nexo, Resa eta Camplus Pamplona aurki daitezke.

Rocio Argudo, Unitouren zuzendariak, aurten beka gehiago zozketatuko direla gogoratu nahi izan du. "Ospatzen ari diren azoka desberdinetara gerturatzen direnen artean, 8 ikasleen unibertsitateko lehen urteko matrikulak ordainduko dira. Pasa den urtean, 5 zozketatu ziren", adierazi du.

Zozketa notario baten aurrean egingo da maiatzean, eta antolatzaileek sarriaren berri emango diete ikasleei. "Pasa den urtean, 5 beka zozketatu genituenean, Gasteizko ikasle bati tokatu zitzaion bat", kon-



ROCIO ARGUDO
UNITOUREN ZUZENDARIA

"Gurasoek erabakian parte hartu dezakete"

Gasteizko Europa Jauregiak Unitour azoka ospatuko du gaur goizean eta arratsaldean.

GASTEIZ – Rocio Argudo Unitour azokaren zuzendaria da, eta unibertsitate publikoei buruz galdetzen dute, edo etxetik kanpo ibili nahi badira, urrugo dagoen lekuren bat. Graduen inguruan, gurasoek ikasitakoa pisu handia dauka, baina gradu berriek, hala nola, bideojokoen diseinua, hedatzen joan dira.

Zer gradu eta unibertsitate aukeratzeko dituzte ikasleak?


– Gehienbat, zonaldeko unibertsitate publikoei buruz galdetzen dute, edo etxetik kanpo ibili nahi badira, urrugo dagoen lekuren bat. Graduen inguruan, gurasoek ikasitakoa pisu handia dauka, baina gradu berriek, hala nola, bideojokoen diseinua, hedatzen joan dira.

Gurasoen iritziak garrantzi handia dauka gradua aukeratzeko orduan?

– Gurasoek oso ondo ezagutzen dituzten haien seme-alabak, hauek dituzten trebetasun eta ahultasunak. Beraz, eta ikasleei erabakitzeko askatasuna utziz, aholkuak eman diezaietke.

Zer dauka garrantzi gehiago, zaletasuna edo irteera profesionalak?

– Gaur egun, ikasleek, langabezi tasarik altuenak gradua amaitu berri dutenen artean daudela irakurtzen dute, eta horrek beldurra ematen du. Hala ere, batzuk soilik faktore hau kontuan hartuta hartzen dute haien erabakia. Gustoko dituzun hiru graduren artean hautatzeko, irteera profesionalak kontuan hartzea ez dago txarto, baina soilik hauek aintzat edukitzea arriskutsua izan daiteke. Izan ere, gustoko ez duzun zerbaitek gitea problema bat da, eta lau urte barru ezinezkoa da jakitea zer-nolako irteerak izango dituzten. s.c.



tatu du Rocio Argudo, Unitour azokaren zuzendariak.

OHIKO ZALANTZAK Unibertsitateari jautzia emango duten ikasleekin 14 urte lan egin ondoren, hauek dituzten zalentza batzuk errepikatzen joan dira. Argudok graduen irteera profesionalak azpimarratu ditu. "Askok gradu desberdinen irteera profesionalak buruz galdetzen dute. Oso kezkatuta daude horren inguruan". Hala ere, nahi duten gradua non ikasi ere sarritan galdetu diete, baita gutxieneko nota zein den ere.

Galdera guzti hauetarako erantzuna dauka Argudok: "unibertsitatei zer eskaini dezaketen galdetu. Erabaki hauek lasaitasunez hartu behar dira. B plan bat edukitzea ere ez dago txarto". Horregatik, beldurra baxiko emozioa izan arren, Argudok baxilergoan zehar dena ondo atera bada,


unibertsitateari sartzerako orduan gauzak ondo aterako direla pentsatu behar dela dio.

"Ikasleek, langabezi tasarik altuenak gradua amaitu berri dutenen artean daudela irakurtzen dute. Horregatik, irteera profesionalak begiratzeko dituzte. Hori ondo dago, bokazioa badaukazu. Ezin duzu gustoko ez duzun zerbaitek aukeratu soilik datu hauei erreparatu", nabarmendu du Unitouren zuzendariak.

GRADU BERRIAK Graduen eskaintzari dagokionez, egoera eta gizarte berriak gradu berrien sorkuntza ekarri du, eskaera desberdinei aurre egin ahal izateko. Honen inguruan ere hitz egin nahi izan du Rocio Argudok. "Duela hamalau urte ez zen existitzen, adibidez, bideojokoen diseinua, baina egun, ikasle ugari ditu eta gehiengoek lan



C/ Las Neveras 3 · Vitoria-Gasteiz · 945 198 067

Tirada: 5.470	Diario <i>Noticias de Álava</i>	Superficie: 221 cm²	
Difusión: 4.123			
(O.J.D)	Pais Vasco	Ocupación: 25.76%	
Audiencia: 14.430		Valor: 958,53 €	
Ref: 11468811	General	Página: 9	2 / 2
	1^a Edición	07/11/2019	

A GAUR



Pasa den urtean ospatutako Unitour azokara gerturatutako ikasleak, aukerak ikusten.

bat aurkitzen dute amaitzean". Gradu honekin batera, beste batzuk ere sortu dira, baina etorkizunean gehien eskatuko diren graduak oraindik ez dira asmatu.

Hau gertatu arte, etorkizunean asmatuko diren graduak existitu arte, ikasleek Unitouren aurkituko dute babesa zer eta non ikasi hautatu ahal izateko. "Haien gurasoak eta irakasleak ere gerturatu daitezke. Soilik non ikasten duten haiek edo haien seme-alabak galdetuko diegu", azaldu du Argudok. Ikasleek dituzten zalanza guztiak argitzeko prest egongo dira gaur Gasteizen. Hala ere, azken erabakia ez da gurasoen, irakasleen edo aholkulariarena izango. Azken erabakia ikasleen esku egongo da. ●